

Adunia

1 **Sorrera.** Taldea 2002an sortu zen. Juanek folk taldea egin nahi zuen eta, 'Defolk' eta 'Flipin folk' taldeetan aritu ondoren, Luis Angelekin eta gaitero batzuekin batera, Eibarko Galiziako etxean entseatzen hasi ginen.

2 **Izena.** Arabiarretik datorren aditzondo bat da 'Adunia' eta aniztasuna edo ugaritasuna esan nahi du. Juanek proposatu zuen eta taldekideoi asko gustatu zitzaigun.

3 **Kideak.** Guztira 6 gara: Ermuko 3 lagun eta Eibar, lurreta eta Debako bana. Juanek mandolina, biolina, bouzoukia, kora eta perkusioa jotzen ditu; Luis Angelek bateria eta bodrham-a; Franek gitarra akustikoa eta elektrikoa; Pedrok baxua; Jesusek gaita, whistleak eta ahotza eta Nekane, zeharkako flauta. Azken kontzertuetan, Zoraidak biolinarekin lagundu izan digu. Sortu zenetik al daketa asko egon dira taldean: Juan eta Luis Angel dira hasieratik dauden bakarrak. Gaur egungo taldekideek bospasei urte daramatzagu elkarrekin eta luzaroan jarraitzea espero dugu.

4 **Estiloa.** Batez ere folk musika egiten dugu, rocka eta reggae-rekin uztartuz. Taldekide bakoitzak bere gustuko estiloa du eta horrek gure abestiengan eragina dauka.



5 **Abestiak.** Jotzen ditugun abestietatik 8 edo 9 gureak dira eta beste batzuk herrikoiak dira. Gainera, Wolfstone, Kepa Junkera edo Luar na Lubre bezalako taldeen abestiak jotzen ditugu. Gure abestietan, Afrikan bizi duten egoera ('Korra') edo Prestige petrolio-ontziarekin gertatutakoa ('Marcha de Noviembre') salatzen ahalegintzen gara. Beste abesti batzuk guregan eragina izan duten tokiei buruz hitz egiten dute: 'Sorginetxe' eta 'Taranta do Tanaro' abestiak, esaterako.

6 **Entseguak.** Asteazkenetan entseatzen dugu, Eibarko 2 de Mayo kaleko baxu batean.

7 **Azken kontzertua?** Azken zuzenekoa Burgoseko Villagonzalo de Pedernalesen eman genuen urriaren 22 eta 23an. Hurrengo Durangon izango dela uste dugu, baina oraindik lotu barik daukagu.

8 **Diskorik, maketarik...** Laster zerbait kaleratzeko asmoa dugu eta orain arte 'Ahaztuak 1936-1977' diskoan parte hartu dugu. Frankismoko biktimen aldeko elkarteak kaleratu zuen disko hau Durangoko Liburu eta Disko Azokan.

9 **Kontaktua.** www.myspace.com/aduniafolk webgunean

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

38 urte Ermua euskalduntzen